




Instituto de Enseñanza Secundaria
TIERRA ESTELLA
LIZARRALDEA
Bigarren Hezkuntzako Institutua

BIZIKIDETZA ARAUDIA

BIZIKIDETZA ARAUDIA



1. SARRERA

IES Tierra Estella - Lizarralde BHik EREDU INTEGRATUA proposatzen du, bizikidetzaren arauak eta horiek haustek ekartzen dituzten ondorioak ezartze. Eredue hori diziiplina positiboa deritzon aplikazioan oinarritzen bada ere, beharrezkoa denean, zigor neurriak ere ezarriko dira. Hona diziiplina positiboaren ezaugarri eta bertuteak:

- ☐ Ondorioak ezartzen ditu
- ☐ Etorkizunari begira ikastea du helburu
- ☐ Autokontrolan eta autodiziplinan du bermea
- ☐ Konponbideak bilatzen ditu
- ☐ Honako uste sendoa du: ikasleak hobeki sentitzen badira, hobeki portatuko dira
- ☐ Hurbiltasuna eta konfiantza sortzen ditu
- ☐ Ikaslea ikaste-subjektu gisa hartzen du, prozesuaren partaidea gisa
- ☐ Gatazken epeltzea eta ikuspegien zabaltzea ekartzen ditu

Hutsegite arinek hezkuntza neurrietan oinarritzen diren ondorioak dituzte, eta portaera zuzentzea dute xede nagusi.

Zigor neurriak ezarriko dira portaera zuzentzen ez denean edota hutsegite larriak egiten direnean.

HELBURUAK

☐ Bizikidetzaren hobetzea

☐ Hezkuntza komunitatearen kideen erantzunkizuna bultzatzea

Ikasleak: beren portaeran eta jokamolde ezegoki batek ekartzen ahal dizkien ondorioetan.

Irakasleak eta ez-irakasleak: ezegokia den portaera bat zuzentzen saiatzean eta portaera egokiak bultzatzean.

Familiak: institutuarekiko elkarlanean eta portaera zuzentzea helburu duten heziketa konpromisoak adosteko borondatean.

☐ Ikasleari euskarriak eskaintzea: gisa horretan, ikasleak bere portaera zuzentzen lagunduko dion gogoeta egiteko aukera izanen du, eta irakasleak esku hartze gradualak egiteko modua.

Euskarriak: 1. Ikasgelaren arautegia eta institutuarena

2. Bizikidetzaren aurkako portaerak (hutsegite arruntak)

3. Bizikidetzaren aurkako portaera bereziki larriak (hutsegite larriak)

Ikasleen portaera ezegokiaren zuzenketa hezkuntza komunitate osoaren ardura da. Hortaz, ikasgelatik kanpo (pasabide zein jolastokian) halakorik gertatuz gero, irakasle guztiek (zaintzan daudenak eta ez daudenak) eta irakasle ez diren bertze langileek zuzendu egin beharko dute halako portaera. Hori dela eta, ikasgela-araudiarekin egin bezala, ikasturte hasmentatik beretik landu egin beharko da hori guztia irakasleekin zein irakasle ez diren langileekin.

Prozedura:

- Portaera ezegoki bat ikusten duenak kargu hartuko dio ahoz ikasleari eta zuzendu dezala saiatuko da. Eta arestian erran gisan, irakasle guztiak saiatuko dira ezegokiak izan daitezkeen ikasleen portaerak zuzentzen.
- Ikasleak muzin egiten badio eskaerari edota kargu hartzea onartu ezean, diziiplina-txosten bat beteko da.
- Ondoren, txosten hori zuzendaritzara eramanen du, eta bertan erabakiko dute zer egin. Nolanahi ere, txostena egin duen irakasleak delako ikasle horri klase ematen badio, komeniko litzateke hartu beharreko neurriak irakasleak berak hartzea eta ez zuzendaritzaren esku uztea afera.

2. ZENTROKO ARAUDIA

1. PUNTUALITASUNA

Ikasle zein irakasleei dagokiena ikasgelara sartu edo bertatik ateratzean. Klaseak 8:15ean hasi eta 14:25ean bukatuko dira, baina D ereduak 2. batxilergoak 15:15ean bukatuko dute, asteazkenetan izan ezik. Ikasleak ikasgelan sartuko dira txirrinak jotzen duenean, eta jarririk egonen dira irakaslea etorri bitartean., baita klaseen arteko tartean ere.

2. ERRESPETUA

Pertsonen arteko harremanetan oinarri-oinarrizkoa da: ikaslea-irakaslea-gainontzeko langileak. Materiala zentroarena da eta hezkuntza-komunitateko kide guztiek errespetatu beharko dute

3. GARBITASUNA ETA ORDENA

Garbitasuna zentroaren helburu nagusietako bat da. Ikasgelak garbi eta txukun egon beharko dira. Irakasleek ez dute eskolarik emanen, ikasgelak zikin eta desordenaturik badaude. Pasabideetan ere garbi eta txukun egonen dira. Lan egin beharko da ikasleek patioa zein kanpoko aldeko garbiketa errespetatu dezaten.

4. ESKOLA-ORDUAN IKASGELAN GELDITU

Ikasgelaz aldatu behar ez duten ikasleak ikasgelan geldituko dira, pasabidera atera gabe. Ikasleak ez dira fotokopiak egitera joaten ahal. Ikasleak ez dira komunera joaten ahal, salbu irakasleak baimena ematea erabakitzen duenean.

5. IKASLEEK NOIZ ERABILTZEN AHAL DUTEN KAFETEGIA

Ikasleek jolas orduetan soilik erabili ahaliko dute kafetegia. Beraz, ezin dira eskola-orduen arteko tartetan sartu.

6. KAFETEGIAN ETA PATIOAN JAN AHALKO DA. BERAZ, IKASGELETAN EZIN DA JAN ETA EDAN

7. IKASGELAK ITXI IKASLEEK BERTZE LEKU BATERA JOAN BEHAR DUTENEAN.

Klasea bukatu ondok, eta ikasleek bertze leku batera joan behar badute, irakasleak beti itxi beharko du atea. Ikasgelako ikasle arduradunak irakasleari gogoraraziko dio.

8. IKASLEEK EZ LUKETE MUGIKORRA ERAMAN BEHARKO INSTITUTURA.

Eta, hala ere, ekarriko balute, haien erantzunkizunpean izanen da, hau da, telefonoa galdu edota hondatuz gero, institutua ez da inola ere horren arduradun izanen. Nolanahi ere, ikasgelan erabiltzea debekaturik dago, eta telefono mugikorrekin egiten ahal diren erabilpen desagokiak falta gisa daude jasoak bizikidetza-araudian. Ikasle bati telefono mugikorra kentzen bazaio, ikasketaburutzak haren familiari soilik itzuliko dio.

9. DROGARIK GABEKO IKASTETXEA

Ezin da kontsumitu, ez trafikatu, ez kontsumoaren eraginpean etorri ere.

3. ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

3.1 TUTORETZA

Irakaskuntzari berezkoa zaio tutoretza. Hortaz, ikasle talde bakoitzak tutore bat izanen du, eta tutorea delako ikasle talde bakoitzaren irakaslea ere izanen da.

3.2 TUTORETZA ETA IRAKASLE-TUTOREAREN IZENDATZEA

Tutoretza eta orientazioa berezkoa zaizkio irakaskuntzari.

Institutuan ikasle talde bakoitzak gutxienez irakasle-tutore bat izanen du. Tutorea Institutuaren zuzendariak izendatuko du, ikasketaburuaren gomendioei jarraituz, eta delako taldearen irakasleetarik bat izanen da. Ikasketaburuak arduratuko dira tutoreekiko kordinazioaz, eta beharrezkoak diren bileretara deituko ditu.

Ikasleen beharrek hala eskatzen dutenetan, talde espezifikoetarako tutoreak ere izendatu ahalko dira. Tutore horiek gainontzeko irakasleen artean hautatuko dira, salbu zuzendaritzako kideak eta departamentuburuak, eta ikasketaburuak aginduriko lanak egin beharko dituzte, talde bakoitzaren tutoreekin elkarlanean.

3.3. IRAKASLEAK

Irakasleek ondoko tresnak baliatuko dituzte institutuaren kudeaketan eta eskola bizitzan parte hartzeko: Eskola Kontseilua, Klaustroa, Departamentuak, Ebaluaketa Batzordeak eta jarduera osagarri zein eskolaz kanpokoak.

Irakasleen eskubideak eta eginbeharrak dagozkien lege eta araudietan biltzen badira ere, ondoko hauek nabarmendu nahi dira:

3.4. IRAKASLEEN ESKUBIDEAK

- a) Langile guztiei onartzen zaizkien lan eskubide guztiak
- b) Institutuaren kudeaketan bete-betean parte hartzea, norberaren izenean edota bere ordezkariean.
- c) Klaustrokidea izatea.
- d) Kalustroaren bilerara deitzea, baldin eta gutxienez kideen herenak hala eskatzen badu.
- e) Eskola elkarteko kide guztiek errespetatua izatea.
- f) Institutuaren gobernu organoetan hautesle zein hautagai gisa parte hartzea.
- g) Irakasteko askatasuna izatea.
- h) Komenigarri kontsideratzen dituen iradokizun, ideia eta arazoak gobernu organoei adieraztea.
- i) Ikastetxeko instalazioak eta materialak erabiltzea, ordutegiak eta ezarritako arauak errespetatuz.
- j) Berritze eta hobetze profesionalerako institutuan, baldin eta helburu horrekin egiten ahal diren jarduerak antolatzerik badago.
- k) Babesturik egotea nahi gabeko istripuetatik suerta daitekeen edozein erantzunkizun zibiletatik.
- l) Greba egiteko eskubidea izatea.
- m) Adierazpen ofizialen informazioa jasotzea.

3.5. IRAKASLEEN EGINBEHARRAK

Ordu-orduan heltzea institutura eskola-ordutegian.

- a) Edozein arrazoiengatik ezin bada institutututa joan, aldez aurretik adierazi beharko zaio zuzendaritzari, eta behar diren ohar eta materialak utziko zaizkio zaintzako irakasleari. Horrekin batera, egiaztatzea aurkeztu beharko da.
- b) Zuzendaritzaren baimena izan ezean, eskola ordutegian ez da ikastetxetik ateratzen ahal.
- c) Eskatzen zaizkion dokumentu akademikoak betetzea.
- d) Ikasleen huts egiteen kontrola eramatea eta egiaztatzea.

- e) Ikasleak ebaluatu Institutuaren organoek ezarritako irizpideak errespetatuz eta datak betez.
- f) Klaustroetara, zikloetako bileretara zein departamentuetako bileretara joatea, baldin eta eskola ordutegian egiten badira.
- g) Klaustroan eta Eskola Kontseiluan hartzen diren erabakiak errespetatu eta betetzea.
- h) Bere irakasgaia programatzea, bere eskolak prestatzea, maila eta ziklo bereko lankideekin koordinatzea, Curriculum Proiektuari eta Urteko Programazioari jarraiki.
- i) Eduki, gaitasun eta baloreen garapenean oinarrituriko heziketa osoa ematea, dogmatismo eta doktrinatzerik gabea, eta ikaslea hezkuntza sistemaren erdigunean jartzea.
- j) Ikasleen adierazpen askatasuna errespetatzea, eta haien iritziz, proposamen edota erreklamazioak biltzea tutoreari, Eskola Kontseiluari edota legokiokeenari emateko.
- k) Irakaslearen ardurapean egonen dira berak kanporatu edo zigorturiko ikasleak, eta horien arrazoiak, Bizikidetza Araudiarekin bat etorriko direnak, idatziz jakinaraziko beharko dizkie bai tutoreari, bai ikasketaburuei.
- l) Bizkidetza arauak errespetatzea eta ikastetxeko instalazioen ordena, garbiketa eta zainketan parte hartzea, eskola-bizitza ongi joan dadin.
- m) Eskola elkarteko kideak errespetatzea, bereziki ikasleak.
- n) Lanean segurtasun zein higiene neurriak errespetatzea eta errespetaraztea.
- o) Ikasleei ondoko informazioa ematea: ikasturte osoko programazioa, ebaluaketa irizpideak, eskatuko diren gutxienezkoak eta berreskuratzeko moduak.
- p) Indarrean dagoen arautegi hau errespetatzea eta errespetaraztea.

3.6. ZAINTZAK

Institutua eta zuzendaria, partikulazki, dira ikasleen arduradunak eskola-ordutegiaren barnean; hori dela eta, zaintzei egoki aurre egiteko adinako irakasle egonen dira.

Eskola-ordu eta atsedenaldi guztietan zuzendaritzak egokitzen jotzen duen irakasle-kopurua egonen da ikasleei behar duten arreta eskaintzeko asmoz. Zaintzako irakasleak aurkitzeko moduko leku batean egonen dira, dela irakasle-gelan, dela ikasketaburuek erabakitako bertze leku batean.

Irakasleren batek huts egiten badu klase batean, zaintzako irakasleak hartuko ditu ikasleak, eta ikasgelan geldituko da haiekin.

Zaintzako irakasleak dagokion adierazpena sinatuko du, eta bertan huts egin duten irakasleen izenak eta dagozkien taldeak adieraziko ditu.

3.7 ZAINTZAKO IRAKASLEEN BETEKIZUNAK

- a) Dagokien irakaslearen huts egitea dela eta, ikasle horiei arreta eskaintzea.
- b) Bere zaintza orduan gerta litezkeen gorabeherak konpontzea. Eta, are gehiago, norbaitek medikuaren laguntza beharko balu, saiatu beharko luke beharrezkoak diren gestioak egiten; ondoren, ikasketaburuei emanen die horien berri.
- c) Idatziz jakinaraztea irakasleen puntualtasuna eta huts egiteak.
- d) Atsedenaldietan ikasleen bizikidetza baketsua eta ikastetxeko instalazioekiko errespetua segurtatzea.

4.1 IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

Ikasleen eskubide eta eginbeharren printzipio orokorrak.

1. Ikasle guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte. Ezberdintasun bakarrak adinaren arabera zehaztutako batzuk izan daitezke.
2. Eskolatzeari, ikaslea bere eginbeharrez arduratuko da, erantzukizunez, eta bere eskubideak ezagutu eta erabiltzeko orduan, beste pertsonak errespetatu beharko ditu, izan ere, erantzukizun hori foru dekreto honen erreferentzia nagusietako bat da.
3. Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan hezteko, ikasleek arau horiek ezagutzeko eskubidea eta errespetatzeko beharra dute.
4. Eskubide bat erabiltzeko, banaka edo taldeka, berarekin dakar besteen eskubideak errespetatu beharra.
5. Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta eskola elkarteko gainerako kideek bermatu behar dute eskubide eta eginbehar horiek testuinguru egokian erabiltzen direla.

4.2 artikulua. Ikasleen eskubideak.

Ikasleek honako oinarritzko eskubide hauek dituzte:

a) Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- Tolerantziaren eta askatasunaren erabileran oinarritutako hezkuntza, elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barnean, hala nola gatazkei aurrea hartu eta bake bidez konpontzeko portaeran oinarritutako hezkuntza.
- Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan oinarritutako hezkuntza.
- Giza Eskubideen tratatu eta deklarazio unibertsalean aitortutako printzipio eta eskubideetan, herritar demokratikoen substratua osatzen duten balio erkideetan eta pertsona guztien duintasunaren errespetuan -nolakoa den aintzat hartu gabe- oinarritutako hezkuntza.
- Foru dekreto honetan eta indarreko legedian ikasleei eta eskola elkarteko gainerako kideei aitortzen zaizkien eskubide eta eginbeharretan oinarritutako hezkuntza.
- Osoko prestakuntza jasotzeko eskubidea, bere nortasuna erabat garatzen laguntzen duena. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:
- Oinarritzko gaitasunetarako hezkuntza, garapen pertsonala eta gizarte integrazioa ahalbidetzeko.
- Curriculumaren arlo guztietan ikasleak kalitatezko irizpideekin hezten dituen irakaskuntza.
- Prestakuntza interes ezberdinetara eta ikasleen ahalmen ezberdinetara egokitutako hezkuntza.
- Hezkuntza emozionala, pertsonen arteko harremanak egoki bideratzen laguntzen duena.
- Zientzia eta didaktikaren oinarritzko printzipioetan oinarritutako irakaskuntza jardueren garapena.
- Prestakuntza etiko eta morala.

- Eskola eta lanbide orientazioa eta orientazio pertsonala, bakoitzak bere gaitasun, ahalmen eta interesen arabera erabakiak hartzea ahalbidetzen duena.
- Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntza aniztasunaren errespeturako prestakuntza.

c) Errespetatua izateko eskubidea.

Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- Intimitatearen errespetua.
- Kontzientzia askatasunaren errespetua, hala nola norberaren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralen errespetua.
- Pertsona guztien aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua, estereotipoetatik eta kanpoko beste baldintza batzuetatik haratago.
- Eraso fisikoen, emozionalen, moralen edo bestelakoen kontrako babesa.
- Elkarbizitza positiboko giroa, jarduerak normal egiteko aukera ematen duena eta errespetua eta elkartasuna sustatzen dituen.
- Konfidentzialtasuna datu pertsonalen tratamenduan. Irakaskuntzaren eginkizunetarako beharrezkoak izateagatik ikastetxeak biltzen dituen ikasleen datu pertsonalen tratamenduan datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen dituzten arau tekniko eta antolaketaak aplikatuko dira. Datuak lagatzeari dagokionez, datu pertsonalen babesari buruzko legediari jarraikiko zaio. Nolanahi ere, ikastetxeak eskatzen duen informazioa irakaskuntza eta orientazio lanetarako behar-beharrezkoa dena izanen da, eta hezkuntzatik kanpoko beste erabilera batzuetarako ezin izanen da erabili, non ez dagoen familiaren edo ikaslearen, adinez nagusia bada, berariazko baimena.

d) Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea.

Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak izateko eskubidea dute. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- Programazio didaktikoen oinarriko alderdiak ezagutzea: helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluaziorako, kalifikaziorako eta aurrera egiteko irizpideak.
- Bere ikaskuntza prozesuaren bilakaeraren gaineko informazioa jasotzea, baita horren arabera hartzen diren erabakien berri ere.
- Lortutako kalifikazioen eta hartutako erabakien gaineko argibideak eskatu eta erreklamazioak aurkezteko aukera izatea, hala ebaluazio partzialetan nola azkenekoetan, betiere Hezkuntza Departamentuak ezartzen duenari jarraikiz.

e) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea.

Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- Ikastetxean dituzten ordezkarien bidez edo legez eratuta dauden ikasleen elkartearen bidez parte hartzea.
- Adierazpen askatasuna. Bere iritziak errespetuz adierazteko aukera, baldin eta iritzi horiek Giza Eskubideen eta balio demokratikoen esparruaren barrenean badaude eta ikastetxearen hezkuntza proiektua eta ikastetxearen izaera errespetatzen badituzte. Ikastetxeek, nor bere Elkarbizitzaren Erregelamenduan, eskubide hori erabiltzeko modua, guneak eta tokiak arautuko dituzte.

- Ikastetxean biltzea. Ikastetxeek, Elkarbizitzaren Erregelamendua prestatzean, ikasleek eskubide hau erabiltzeko baldintzak ezarriko dituzte.
- Elkarateak osatzea. Ikasleek elkarateak osatzeko eskubidea dute, indarreko legediari jarraikiz.
- Adiskidetze eta bitartekaritza bideak erabiltzea gatazkak konpontzeko hezkuntza metodo gisa.
- Ikasleek ikastetxeetako gobernu organoetan parte hartzea indarreko araudiari jarraikiz.

f) Denek aukera berdinak edukiz hezia izateko eta babes soziala izateko eskubidea.

Ikasle guztiek babes sozialerako, aukera berdintasunerako eta hezkuntza eremuan sartzeko eskubidea dute, indarreko lege esparruaren barrenean. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

- Babes eta laguntza jasotzea desberdintasun, gabezia edo desabantaila pertsonalak, familiarak, ekonomikoak, sozialak edo kulturalak konpentsatzeko, hezkuntza sisteman sartzeko edo segitzea galarazten edo zailtzen duten premia berariazkoak dituztenei arreta berezia eskainiz.
- Familia ezbeharretan edo istripuetan babesa jasotzea. Eritasun luzea gertatzen denean, ikasleek eskubidea du ezinbestean eskolatu gabe egon beharreko aldiak bere ikasketen errendimenduan duen eragina gutxitzeko behar den laguntza jasotzeko.
- Terrorismoaren biktimak diren ikasleei arreta berezia ematea, ikasketak egoki egiteko behar duten laguntza jaso dezaten.
- Genero indarkeriaren edo eskolako jazarpenaren biktimak diren ikasleei arreta berezia ematea.
- Tratu txar fisiko edo psikologikoen edo axolagabekeriako edo babesgabetasuneko beste edozein egoeraren arrazoizko zantzurik dagoenean edo horrelakoak konfirmatzen direnean, babesa ematea.

g) Osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea.

Ikasle guztiek beren osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea dute. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

- Ikastetxeetan ohitura osasungarriak sustatzea.
- Gorputz ariketa egiteko ohiturak sustatzea, osasunerako eta aisialdirako, hezkuntzaren ikuspegi batetik.
- Elikatzeko ohitura osasuntsuak sustatzea. Ikastetxeetako jantokietan eskaintzen diren menuetan hori bermatu beharko da.

h) Jasotzen den hezkuntzan, helburuen artean emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren berdintasuna sartzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- Behar diren gaitasunak garatzea eta behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak sartzeko ikasleek autonomiaren eta independentzia pertsonalaren arloan, etxeko lanen arloan eta pertsonen zainketa arloan dituzten edo izan ditzaketen behar eta erantzukizunak beren gain har ditzaten.
- Behar diren ezagutzak eta trebetasunak sartzeko ikasleek ikas dezaten erabakitzeko esparruetan erantzunkidetasuna onartzen eta horrela parte hartzen.
- Emakumezkoak eta gizonezkoak berdintzat hartzea, emakumezkoek hainbat diziplinatan duten jakinduria berreskuratzeko eta gizadiaren garapenerako egin duten ekarpen sozial eta historikoa aintzat hartuz.
- Hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta komunikatzeko estiloen aniztasuna errespetatzea, ikaslearen autoestimua eta nortasuna garatzeko berdintasun balioak transmititzeko giltza-baliabidea baita.

- Aukera akademikoak, pertsonalak eta profesionalak sexuari lotutako estereotipoetan oinarritutako baldintzarik gabe egiteko prestatzea.
- Ikaslearen heldutasun pertsonala, soziala eta morala sendotzea, bere harreman pertsonaletan eta afektibo-sexualetan erantzukizunez eta modu autonomoan jarduteko, dauden desberdintasunak aztertu eta kritikoki baloratzeko eta pertsonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko.

5. artikulua. Ikaslearen eginbeharrak.

Hona hemen ikaslearen oinarritzko eginbeharrak:

- a) Ikastea, ikasleen oinarritzko eginbeharra baita. Eginbehar honek zera dakar:
 - a.1) Eskolako nahitaezko jarduera guztietara joatea eta aktiboki parte hartzea.
 - a.2) Ikastetxeko jardueren ordutegia errespetatzea eta garaiz iristea, jarduerak ikastetxearen instalazioen barrenean izan edo kanpoan.
 - a.3) Estudiatzea eta ahalegintzea, norberaren gaitasunen arabera garapenik handiena lortzeko.
 - a.4) Atsedenaldiari, elikadurari eta higieneari dagokienez, ohitura egokiak izatea.
- b) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea. Eginbehar honek zera dakar:
 - b.1) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea, hala hezitzaile gisa ari direnean, nola ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu arauak eta elkarbizitzaren arauak betetzeko kontrol lanetan ari direnean.
 - b.2) Irakasleek agintzen dituzten lanak egitea.
 - b.3) Ikastetxearen izaera eta hezkuntza proiektua errespetatzea.
- c) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea. Eginbehar honek zera dakar:
 - c.1) Ikastetxeko elkarbizitzarako arauak eta antolaketa eta funtzionamendu arauak betetzea.
 - c.2) Parte hartzea eta eskola elkarteko kide guztiei modu aktiboan eta positiboan laguntzea hezkuntza jarduera guztiak errazago egin daitezen.
 - c.3) Ikasgelan eta ikastetxean ikasteko giro egokia sortzen eta mantentzen laguntzea irakasleei.
 - c.4) Bere ahalmenen arabera, sortzen diren gatazkei aurrea hartzen eta gatazkak bake bidez eta zuzen konpontzen parte hartzea.
 - c.5) Behar dutenei laguntza eskaintzea eta ematea.
 - c.6) Pertsona ahulenen alde eta eskolan jazarpena jasan dezaketenen alde aktiboki parte hartzea, biktimagaiak errespetatuz, defendatuz eta integratuz, eta ikastetxeak Elkarbizitza Planeko "antibullying" protokoloaren bidez ezartzen dituen neurrietan lagunduz.
 - c.7) Ikastetxeko eta, kasua bada, ikasgelako elkarbizitzarako arauak eta funtzionamendu arauak prestatzen parte hartzea, bere eskumen esparruan.
 - c.8) Ikastetxearekin batera aktiboki parte hartzea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxeko jarduera eta bizitzan sar daitezen.
- d) Pertsonak errespetatzea. Eginbehar honek zera dakar:
 - d.1) Besteenganako harremanetan errespetuz jokatzeko eta hori elkarbizitzarako oinarritzko arautzat hartzea.
 - d.2) Bere ikaskide guztiei ahalbidea eta erraztasunak ematea foru dekretu honetan ezarritako eskubide eta eginbehar guztiak erabil ditzaten, batez ere ikasteko eskubidea.
 - d.3) Jarrera baketsua izatea eta sustatzea, mota guztietako indarkeriak errefusatzeko.
 - d.4) Kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak errespetatzea, jende guztiaren eskubidea den aldetik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Espainiako Konstituzioak babestu eta aitortua; orobat, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien duintasun pertsonala, osotasuna eta intimitatea

errespetatzea, jaiolekua, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela kausa litezkeen bazterketa guztiak saihestuz.

d.5) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien ondasunak errespetatzea.

e) Ikastetxera behar bezala jantzita eta norberaren higieena zainduta joatea. Eginbehar honek zera dakar:

e.1) Erabiltzen diren jantziak ikastetxeen izaeraren arabekoak izatea, ikasteko tokiak baitira. Jantziak hezkuntzako lanak eta jarduerak egoki eta ongi egiteko modukoak izanen dira eta ikaslea identifikatzeko trabarik ez dute jarriko.

e.2) Ikastetxearen aholkuak errespetatzea. Ikastetxeak ikaslearen jantzien erabilera arautzen ahal du. Araudi horrek gizonezkoen eta emakumezkoen tratu berdintasunaren irizpideak hartuko ditu aintzat eta kontuan hartuko ditu jantzien aniztasuna eta elkarbizitzan dituzten ondorioak, gogoeta kritikoa eginez eta integrazioaren ikuspegitik, eta aniztasuna errespetatuz.

e.3) Norberaren higieena eta garbiketarako ohitura egokiak izatea, osasun egoera egokian izateko eta eritasunen transmisioa galarazteko.

f) Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruetakoak eta eskola garraioetakoak. Eginbehar honek zera dakar:

f.1) Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua, larrialdietako sistemak eta hezkuntza jardueran erabiltzen diren materialak errespetatu eta zaintzea.

f.2) Ingurumena errespetatzea, ikastetxean garbitasuna zainduz, ura eta energia egoki erabiliz, hondakinak bereiziz, etab.

f.3) Ikastetxearen inguruak errespetatzea, lorategiak, espaloiak, atariak, fatxadak, hormak eta abar garbi eta txukun mantenduz.

5. FAMILIAK

Beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, aitei, amei edo legezko ordezkariari dagokie behar diren neurriak hartzea, behar den laguntza eskatzea eta ikastetxeari laguntzea hezkuntza prozesua egoki joan dadin. Gainera, beren seme-alabak eskoletara eta programatzen diren jardueretara joatearen ardura izanen dute, eta baliabide guztiak jarriko dituzte etxean estudiatu eta irakasleek agintzen dituzten etxeko lan guztiak egin ditzaten.

5.1. AITEN, AMEN EDO LEGEZKO ORDEZKARIEN ESKUBIDEAK.

1. Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzari dagokionez, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan aitortutako eskubideak dituzte.

2. Hezkuntza Departamentuak aurreko puntuan adierazitako eskubideak erabili ahal izatea bermatuko du. Bereziki bermatuko da gurasoek edo legezko ordezkariak beren seme-alaben ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzeko duten eskubidea, deusetan galarazi gabe ikastetxeko zuzendaritzari eta irakasleei esleitutako eskumenak. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- a) Seme-alaben ikaskuntza prozesuaren aurrerapenei eta haien gizarte eta hezkuntzako integrazioari buruzko informazioa jasotzea. Hori dela eta, ikastetxeek prozesu horiei buruz behar den informazio guztia emanen diete gurasoei edo legezko ordezkariari.
- b) Ikasturtearen hasieratik helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluatu, kalifikatu eta aurrera egiteko irizpideak ezagutzea eta egiten dituzten erreklamazioei buruzko informazioa eta argibideak jasotzea.

- c) Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren neurrietatik beraiei dagozkienak ezagutzea, batez ere eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko baliabide gisa erabiltzekoa, eta, halakorik bada, parte hartzea proposatzen diren neurrien eta erabakien diseinuan, eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztea, indarreko arudiari jarraikiz.
- d) Beren seme-alaben orientazio akademikoaren edo profesionalaren gaineko erabakiak hartzen direnean, entzuna izatea, aurreko puntuetan adierazitako parte-hartzea deusetan galarazi gabe.
- e) Ikastetxearen antolaketan, gobernuan eta funtzionamenduaren balorazioan parte hartzea, Eskola Kontseiluan edo ikastetxeko gurasoen elkarteetan parte hartuz.

5.2 AITEN, AMEN EDO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERANTZUKIZUNAK.

1. Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.2 artikuluan ezarritako eginbeharrak dituzte.

2. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza arloko administrazioak eta kasuan kasuko ikastetxeak aurreko idatz-zatian adierazitako erantzukizunak betetzen direla begiratu dute, eta bereziki, honako hauek betetzen direla begiratu dute:

- a) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren bilakaera ezagutzea, ikasketetara animatzea eta errendimendua hobetzeko parte-hartze aktiboa izatea, eta, hala badagokio, portaera batzuk zuzendu behar badira, ikastetxearekin lankidetzan aritzea.
- b) Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina izatea eta erraztea.
- c) Beren seme-alaben asistentzia, aprobetxamendua eta parte-hartzea bermatzen dituzten neurriak, baliabide materialak eta baldintzak hartzea.
- d) Beren seme-alabak ikastetxera eraman eta hartzeko orduan, puntualak izatea.
- e) Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak errespetatzea eta beren seme-alabei hori errespetaraztea.
- f) Eskola Komunitateko kide guztiek dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean laguntzea.
- g) Ikastetxearen berezko izaera ezagutzea eta ikastetxearen hezkuntza proiektua errespetatzea eta seme-alabei errespetaraztea.

3. Ikastetxeko Elkarbizitza Planean familiek ikastetxeko bizitzan izanen duten parte-hartzea arautuko da, elkarbizitzari buruzko alderdi guztietan.

5.3.- IKASLEEN GURASO ELKARTEEN ERAKETA ETA EGINKIZUNAK.

*Lizarralde*a Bigarren Hezkuntzako Institutuan uztailaren 11ko 1533/1986 Errege Dekretuan araututa dauden ikasleen guraso elkarteak eratu ahalko dira.

Ikasleen guraso elkarteek honako ahalmen eta eginkizunak aitortzen zaizkie:

- a) Eskola Kontseiluari Hezkuntza Proiektua, Urteko Programazio Orokorra eta Barne-araudia egin eta aldatzeko proposamenak aurkeztea, beti ere klaustroari dagozkion irakaskuntza eta pedagogia arloetako alderdiak errespetatuz.
- b) Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetarako proposamenak egitea. Onartzen badira Urteko Programazio Orokorrean sartu beharko dira.
- c) Ikastetxearen jardunaren gainean egoki iruditzen zaizkien xehetasunak Eskola Kontseiluari jakinaraztea.

- d) Txostenak prestatzea Eskola Kontseiluarentzat, bere ekimenez edo Kontseiluaren eskariz.
- e) Kide gehien duten ikasleen guraso elkarteek Eskola Kontseiluko ordezkariak izendatu beharko dituzte, Erregelamendu honetan aurreikusita dagoen moduan.
- f) Ikastetxeko instalazioak erabiltzea, indarra duen araudiak ezarritako baldintzetan.
- g) Hezkuntza Proiektuaren ale bat eskuratzea eta izan daitezkeen aldaketena.
- h) Eskola Kontseiluaren informazioa jasotzea, Kontseiluan jorratutako gaiei buruzkoa, eta gai zerrenda ere bai, bilkura egin baino lehen, proposamenak prestatzeko aukera izan dezaten.
- i) Ikastetxeak hautaturiko testuliburu eta material didaktikoei buruzko informazioa jasotzea.
- j) Ikasketen emaitzak eta horiei buruz Eskola Kontseiluak egiten duen balorazioa ezagutzea.
- k) Hezkuntza komunitateko kide guztiei beren jardunaren berri ematea.
- l) Ikasleen gurasoen eta institutuko irakasleen arteko elkarlana sustatu beharko dute, institutuak ongi funtziona dezan.

6. LANGILE EZ-IRAKASLEAK

6.1 LANGILE ADMINISTRATIBOAK: Funtzioak, eskubideak eta eginbeharrak.

Langile administratiboak dira institutuaren idazkariaren gidaritzapean lan burokratikoak edota kontabilitatekoak egiten dituztena.

6.2 LANGILE ADMINISTRATIBOEN FUNTZIOAK ETA EGINBEHARRAK

Idazkariaren aginduei jarraikiz, haien lan-kategoriari dagozkien lanak egin behar dituzte, hala nola:

- a) Informazioa lortzeko xedez edota egiaztagiriak, tituluak zein institutuak egiten dituen ziurtagirien eskuratzeko asmoz, bulegora joaten diren ikasle zein langileei arreta ematea, baita telefonoz deitzen duten ikasle zein langileei ere.
- b) Zuzendariak, idazkariak edota ikasketaburuek aginduriko datuen bilketa egin eta posta bidez jasotakoa artxibatzea.
- c) Matrikula, espediente, beka, diru-laguntza, estatistika eta abarren dokumentazioa berrikusi, ordenatu eta, hala badagokio, zuzentzea.
- d) Ikasleen datu-bankua eta ebaluazio-emaitzak prestatu eta kudeaketa-ordenagailuan sartzea. Emaitzen boletinak, matrikulak, eskola-aseguruak eta datuekin zein eskola-dokumentazioarekin zerikusia duen guztia prestatu eta igortzea.
- e) Eskatzen zaizkien dokumentuak, objektuak eta materiala jaso, ordenatu, banatu eta zaintzea.
- f) Idazkaritzan erabiltzen diren bitartekoak eta ordena zaintzea.
- g) Iniziatiba eta erantzunkizuna eskatzen dituen edozein zeregin burokratiko edo kontularitzako egitea, baldin eta haien lan-kategoriari dagozkien lanak badira.
- h) Indarrean dagoen legediak ezar lezakeen edozein lan egitea.

6.3. LANGILE ADMINISTRATIBOEN ESKUBIDEAK

- a) Beren hobekuntza segurtatzeko beharrezkoak diren bitartekoak izatera.
- b) Institutuaren Erakundearen hautaketan parte hartzea, baita langileen ordezkaritzan ere, araudi honek ezartzen dituen jarraibideak kontuan hartuz.

- c) Biltzeko eskubidea, beren zereginen garapen egokia kontuan hartuz.
- d) Institutuko gainontzeko pertsonen errespetatua izatera, bai beren duintasun pertsonalean, bai beren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralean, eta hori adierazteko askatasuna izatera.
- e) Indarrean dagoen legediak ezar lezakeen edozein eskubidetara.

6.4. GARBIKETAKO LANGILEAK

Garbiketako langileak dira, idazkariak ezarritako antolaketan, delako eremuan garbiketa eta zainketa lanak egiten dituztenak.

6.5. GARBIKETAKO LANGILEEN FUNTZIOAK ETA EGINBEHARRAK

- a) Dagozkien eremu guztiak garbitzea.
- b) Ahal den neurrian, lana eskola-orduetatik kanpo egitea; eta hala aritzea ezin denean, irakasleen lana ez trabatzea.
- c) Eskaintzen zaizkien garbiketa tresnak modu egokian erabiltzea eta zaintzea.
- d) Ikasleekiko zein institutuko langileekiko errespetuzko harremanak zaintzea.
- e) Ikastetxeko eremu guztietarako sarbidea dutenez, ez dituzte eskura dituzten makinak manipulatu, ezta bulego zein departamentuetan egon daitezkeen idazki eta dokumentuak irakurri edota ukituko.
- f) Indarrean dagoen legediak ezar lezakeen edozein.

6.6. GARBIKETAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

- a) Beren hobekuntza segurtatzeko beharrezkoak diren bitartekoak izatera.
- b) Institutuaren Erakundearen hautaketan parte hartzea, baita langileen ordezkaritzan ere, araudi honek ezartzen dituen jarraibideak kontuan hartuz.
- c) Biltzeko eskubidea, beren zereginen garapen egokia kontuan hartuz.
- d) Institutuko gainontzeko pertsonen errespetatua izatera, bai beren duintasun pertsonalean, bai beren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralean, eta hori adierazteko askatasuna izatera.

6.7. ATEZAINAK ETA ORDENANTZAK

Atezaina institutuaren idazkariaren ardurapean dago.

6.8. ATEZAINEN ETA ORDENANTZEN FUNTZIOAK ETA EGINBEHARRAK

- a) Eskola-altzariak, makinak, instalazioak eta lokalak zaintzea.
- b) Garbiketako langileen lanak ikuskatzea.
- c) Institutik kanpoko jendearen sartu-aterak ikuskatzea, haien eskareka jasotzea eta, beharrezkoa bada, joan behar duten tokiraino laguntzea.
- d) Isiltasuna eta ordena segurtatzea, institutuko jendearen joan-etorrietan.
- e) Ateak ordu-orduan itxi eta irekitzea, baita argiak piztu eta itzaltzea ere.
- f) Institutuko departamentu, bulego eta gainerako lokalen giltzak zaintzea.
- g) Eskatzen zaizkien dokumentuak, objektuak eta materiala jaso, ordenatu, banatu eta zaintzea.
- h) Eskatzen zaizkion manatuak egitea, institutuan zein kanpoan.
- i) Institutuko irakaskuntza lanetarako diren erreproduzigailuak, multikopiagailuak, fotokopiagailuak, azaleztagailuak eta gisa berekoak erabiltzea.

- j) Institutuko eremu guztien mantenimenduan laguntzea:
 - 1.- Beharrezkoak den zaintza-lanak egitea.
 - 2.- Detekzioa eta konponketa txikiak.
 - 3.- Matxura handiagoen berri idazkariari ematea, eta dagokion teknikariari deitzea, honek konpon dezan.
- k) Etxebizitza institutuaren eremuan dutenek, gainera, honako eginbeharrak zianen dituzte: ikastetxea ireki eta ixtea, zainketa lanak egitea, eraikinari datxezkion zonaldeak zaintzea, berdeguneak eta berogailuen ikuskatzea.
- l) Oro har, eta beharrezkoak badira, antzeko ezaugarriak dituzten lanak egitea.
- m) Indarrean dagoen legediak ezar lezakeen edozein.

6.9. ATZEZAINEN ETA ORDENANTZEN ESKUBIDEAK

- a) Beren hobekuntza segurtatzeko beharrezkoak diren bitartekoak izatera.
- b) Institutuaren Erakundearen hautaketan parte hartzea, baita langileen ordezkartzean ere, araudi honek ezartzen dituen jarraibideak kontuan hartuz.
- c) Biltzeko eskubidea, beren zereginen garapen egokia kontuan hartuz.
 - d) Institutuko gainontzeko pertsonen errespetatua izatera, bai beren duintasun pertsonalean, bai beren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralean, eta hori adierazteko askatasuna izatera.

6.10. MANTENTZE-ZERBITZUKO LANGILEAK

Mantentze-zerbitzuko langileak institutuaren idazkariaren ardurapean daude.

6.11. MANTENTZE-ZERBITZUKO LANGILEEN FUNTZIOAK ETA ZEREGINAK

- a) Eskola-altzariak, makinak, instalazioak eta lokalak zaintzea.
- b) Ateak ordu-orduan itxi eta irekitzea, baita argiak piztu eta itzaltzea ere.
- c) Institutuko departamentu, bulego eta gainerako lokalen giltzak zaintzea.
- d) Eskatzen zaizkion manatuak egitea, institutuan zein kanpoan.
- e) Institutuko irakaskuntza lanetarako diren erreproduzigailuak, multikopiagailuak, fotokopiagailuak, azaleztargailuak eta gisa berekoak erabiltzea.
- f) Institutuko eremu guztien mantenimenduan laguntzea:
 - 1.- Beharrezkoak den zaintza-lanak egitea.
 - 2.- Detekzioa eta konponketa txikiak.
 - 3.- Matxura handiagoen berri idazkariari ematea, eta dagokion teknikariari deitzea, honek konpon dezan.
- g) Etxebizitza institutuaren eremuan dutenek, gainera, honako eginbeharrak zianen dituzte: ikastetxea ireki eta ixtea, zainketa lanak egitea, eraikinari datxezkion zonaldeak zaintzea, berdeguneak eta berogailuen ikuskatzea.
- h) Oro har, eta beharrezkoak badira, antzeko ezaugarriak dituzten lanak egitea.
- i) Indarrean dagoen legediak ezar lezakeen edozein.

6.12. MANTENTZE-ZERBITZUKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

- a) Beren hobekuntza segurtatzeko beharrezkoak diren bitartekoak izatera.
- b) Institutuaren Erakundearen hautaketan parte hartzea, baita langileen ordezkartzean ere, araudi honek ezartzen dituen jarraibideak kontuan hartuz.
- c) Biltzeko eskubidea, beren zereginen garapen egokia kontuan hartuz.

- d) Institutuko gainontzeko pertsonen errespetatua izatera, bai beren duintasun pertsonalean, bai beren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralean, eta hori adierazteko askatasuna izatera.

7. PORTAERAREN ARAUTZEA

7.1 IKASGELAKO ARAUDIA

Sarrera

Irakasleen ardura da ikaskuntzarako eta bizikidetzarako giro egokia sortuko duten arauak ezartzea. Beren ardura da, halaber, hori lortzeko trabagarri izan daitezkeen portaerak zuzentzea. Horretarako sortu dugu ikasgelarako araudia, irakasleek zein ikasleek kode komuna izan dezaten bai ezin onar daitezkeen jokaerak zeintzuk diren ezartzeko, bai horiek zuzentzeko.

Hona araudi honen helburuak:

- Portaera disruptiboei eta diziplinarik ezari AURRE EGITEA.
- Portaeraren AUTOERREGULAZIOA. Horren bitartez, mugak jarri eta ondorioak ezartzen dira, eta, hortaz, zuzentzeko aukerak ematen dira.
- Helburu akademikoak eta bizikidetzakoak lortzeko giro egokia sortzea.

Hautaturiko eredia **EREDU ARRAZOITUA** da. Gure institutuaren ezaugarriak kontuan harturik, zaila da adostutako eredia edota erdi adostutakoa aplikatzea. Aniztasunaren trataerak bikoizketa eta irakasle asko eskatzen ditu, eta horrek ezinezko egiten du ikasle-talde mota ororendako arautegi ezberdin bat izatea.

Berariazko ikasgelek (Informatika, Musika, Lantegiak, Laborategiak, Liburutegia...) arautegi espezikoa beharko dute izan, ikasgela horien ezaugarriei eta lan motari egokitu zaien.

Prozedura

- ☐ Ikasturtea hasi aitzin, araudia landuko da irakasleen artean.
- ☐ Ikasturtea hastearekin batera, tutoreak egin beharko du lan ikasleekin. Nahitaezkoa izanen da irakasleak sistematikoki eta sendo jokatzeko araudia aplikatzerakoan; eta ikasleek garbi izan beharko dute zeintzuk diren ondorioak.
- ☐ Aplikazio eremua ikasgela da, eta arduraduna irakaslea.
- ☐ Ondorioak mailakatuak egon behar dira.
- ☐ Irakasleak erregistroa bere koadernoan bilduko du.
- ☐ Ikasgelako araudia bete ezean, hutsegite arina egon liteke, eta, ondorioz, diziplina txosten bat.

IKASGELARAKO ARAUDIA

Ikaslearen betebeharrak	Zer egin
1. BEHARREZKOA DEN MATERIALA EKARRI ETA ZAINTEA - Materialak ekartzen ez duenak denbora eta arreta galtzen du, eta, aspertu eta jostetan ibiltzen denez, bere ikaskideei ere arreta galarazten die. - Halaber, ikasgelan ezin izanen da baimendurik gabeko aparaturik erabili (telefonoa, mp3a, eta abar), ezegoki erabiltzen baitira eta, ondorioz, ikaslea bere eginbeharretatik oharkabetzen baitute.	Egunero-egunero, institutura joan atzin, begiratu zer material behar den, eta ohitura gisa hartu. <u>Noizbehinkako ez-betetzea:</u> - Irakasleak fotokopia bat emanen dio ikasleari, edo berea ere uzten ahal dio. - Irakasleak orri batean egingen du lana, eta, gero, etxean, bere koadernoan kopiatuko du. - Ikaskide baten ondoan jarriko da, eta etxean kopiatuko du lana. - Irakasle batek mahaia zikintzen badu, garbitu beharko du. - Irakasle batek zerbait hausten badu, ordaindu beharko du. - Irakasle batek telefonoa edo mp3a ateratzen badu, motxilan itzalirik gorde dezala aginduko zaio. <u>Ohiko ez-betetzea:</u> - Ez zaio ikasleari materiala utziko eta lana jarriko zaio. Ez bazaio lan bat jartzen ahal, isilik egonen da, bertzei traba egin gabe. - Familiari jakinaraziko zaio, lana hobeki antolatzen lagun diezaioten. - Mahaiak behin eta berriz zikintzen baditu, irakasleak aginduriko arratsalderen batean etorri beharko du garbitzera. - Irakasle batek behin eta berriz hausten badu materialen bat, arratsalderen batean etorri beharko du, edo, bertzenaz, instituturako lanen bat egin beharko du, irakasleak hala erabakitzen badu. - Irakasle batek behin baino gehiagotan telefonoa edota mp3a ateratzen badu, delako aparatua kendu eta hutsegite bat jarriko zaio (ikus araudia)
2. ADI EGOTEA irakaslearen azalpenei eta ikaskideen parte hartzeari Zergatik: - Irakasleak arreta galtzen badu, klasea etengo du galderak egiteko. - Delako ikasgaia ikasteko arazoak izanen ditu. - Lan bat egiteko jarraibideak badira, ezin izanen du lan hori behar bezala egin. - Azterketen, irteeren edota lanak emateko epeen inguruko datak zehazten ari badira, ez du informazio hori behar den moduan jasoko. - Ikaskideen galderak aditzen ez baditu, galdera berak egiten ahal ditu, eta hori, denbora galarazteaz gain, adi egon diren ikaskideei sobera astun egiten ahal zaie.	Irakasle batek, zerbait konprenitu ez badu, galdetzen ahal du, baina itxoin beharko du irakasleak bere azalpenak eman eta zalantzatarako txanda hasi arte. Ikaslea adi egon ez bada, klasea bukatu arte itxoin beharko du, edo, bertzenaz, atsedenaldiak probestuko ditu bere galderak egin ahal izateko (irakasleak erabakiko du nola egin). <u>Noizbehinkako ez-betetzea</u> - Irakasle batek irakasleak jadanik azaldu duen zerbaiten inguruan galdetzeko klasea eteten badu, irakasleak erranen dio klase bukaeran edo atsedenaldian lagunduko diola. <u>Ohiko ez-betetzea:</u> - Arreta falta ohikoa bada, ez zaio azalpenik emanen ikasleari, irakaslea gehiegi baliatzea litzatekeelako. Horrelakoetan, irakasleak tutoreari eta familiari jakinaraziko die, ikasleari arretari eusten lagun diezaioten. Irakasle bat irakaslearen azalpenei adi egon ezean: - Lan bat egingen du (kopiaketa lanak, jarduerak, ariketak...) - Irakasle batek adi egon gabe jarraitzeen badu, hurrengo egunean, klase hasmentan, bere ikaskideei azaldu beharko die aurreko egunetan bera adi egon ez zen tenorean emandako azalpenak. Ondoren, bere ikaskideek ebaluatu beharko dituzte haren azalpenak.

3. KLASEAN LAN EGITEA Jarduerak edota ariketak egin behar direnean, saiatu behar da ahalik eta ongien egiten. Hori dela eta, ikasleak mintzatuko dira soilik dudak argitzeko edo laguntza eskatzeko, eta ez dute arreta galarazten ahal duen objekturik aterako.	-Ikasle bat adi egon ez bada eta bertze batekin solasean aritu bada, baliteke traba berezirik ez sortzea, nozibehinkakoa eta laburra izan baitaiteke. Beraz, irakasleak aztertu eta baloratuko ditu egoera horiek, eta erabaki beharko du nola jokatu kasu bakoitzean. Zerbait egin beharra dela deliberatuz gero, ikasleari ohartaraziko dio; eta honek berdin segitzen badu, bere ikaskidearengandik bereiziko du. -Ikasle batek objekturen bat ateratzen badu, gorde dezala eskatuko zaio. Gordetzen ez badu, edo berriz ere ateratzen badu, irakasleak delako objektua hartu eta zuzendaritzara eramanen du. -Ikasle batek berdin segitzen badu eta ez badio irakaslearen ohartarazpenari kasurik egiten, azken honek lan osagarri bat aginduko dio.
4. IRAKASLEA BEGIRUNEZ TRATATZEA Inportantea da pertsona guztiei errespetua zor zaielako. Zenbait erantzun guretako ohikoak izan arren, iraingarriak izan daitezke, eta inork ez du irainik jaso nahi. Gainera, hitz txar eta bortitzek gisa bereko erantzuna ekarri ohi dute, eta, ondorioz, bi aldeak lotsagarri uzten dituzte. Hortaz, inork iraintzen bagaitu, ahalik eta lasaien adieraziko diogu zer sentitu dugun, bertzea mindu gabe.	-Ikasle bat modu ezegokian zuzentzen bazaio irakasleari, honek ikasleari gauza bera adeitasunez, irainik eta oihurik gabe, berriro adierazteko eskatuko dio. Irakasleak aztertuko du zuzenketa egokia izan den. -Ikasleak bere jokamoldea zuzendu ezean, irakasleak, ikaslea kanporatu beharrean, zuzendaritzari jakinarazi ahalko dio. Hutsegite gisa adieraziko da, eta, ondoren, irakaslea ikaslearekin mintzatuko da aua argitzeko eta portaera bideratzen saiatzeko, gerora horrelakorik gerta ez dadin (ikus araudia). -Irain larriak izan badira, ez dira inola ere onartuko: ikaslea kanporatuko du eta honek berehala zuzendaritzara joan beharko du (ikus araudia).
5. IKASKIDEAK BEGIRUNEZ TRATATZEA Ikaskideen artean lagunarteko hizkera erabili ohi da, baina modu egokian erabili beharko da, inor mindua senti ez dadin.	-Irakasle batek ikusten badu ikasle batek bere ikaskide bat irain duela, gauza bera errespetuz erratea eskatuko dio. -Ikasleak bere jokamoldea zuzendu ezean, irakasleak, kaslea kanporatu beharrean, zuzendaritzari jakinarazi ahalko dio. Hutsegite gisa adieraziko da, eta, ondoren, irakaslea ikaslearekin mintzatuko da aua argitzeko eta portaera bideratzen saiatzeko, gerora horrelakorik gerta ez dadin (ikus araudia). - Irain larriak izan badira, ez dira inola ere onartuko: ikaslea kanporatuko du eta honek berehala zuzendaritzara joan beharko du (ikus araudia). - Ikasleak bere jokamoldea zuzendu ezean, irakasleak gatazkan inplikaturik dauden ikasleei galdetuko die zergatik jokaatu duten gisa horretan, eta, gero, haiekin solastuko da egoera argitzeko.
6. IKASGELA GARBI ETA TXUKUN IZATEA Denon betebeharra da ikasgela txukun eta garbi mantentzea, lana erosotasunez egin ahal izateko.	Ikasgelaren egoera egunero-egunero aztertuko da, guk aurkitu dugun bezala egon dadin beti. Noizbehinkako ez-betetzea: - Ikasle batek araua lehenbizikoz hausten duenean, bere jokamoldea zuzendu eta eginiko kaltea konponduko du. Klaseko erritmoa eteten badu, klase bukaeran eginen du. Ohiko ez-betetzea: -Arau hori berriz ere hausten badu, ikasleak atsedenaldi batean konpondu beharko du eginiko kaltea. -Delako araua behin eta berriz hausten badu, arratsalde batean etorri beharko du ikasgela garbitu eta txukuntzera.
7. TXIRRINA JO ARTE MATERIALA EZ GORDETZEA ETA EZ ZUTITZEA	Gogoratu araua. Noizbehinkako ez-betetzea: Materiala biltzen hasten den lehena huraxe izanen da ateratzen azkena. Ohiko ez-betetzea: Ikasgelatik ateratzen azkena izanen da, eta irakasleak erabakiko du noiz arte.

7.2 JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKOEN ARAUDIA

- Jarduera osagarriak nahitaezkoak dira.
- Eskolaz kanpoko jarduerak, aldiz, borondatezkoak dira, eta gutxienezko parte-hartzea beharko da aurrera eraman ahal izateko: normalki, gutxienez ikasleen

%60k parte hartu beharko du. Nolanahi ere, aipatu ehunekoa ez da ikas-bidaietan aplikatuko, eta irizpide malguagoak erabiliko dira.

- Jarduera batean parte hartzen ez duten ikasleek klasera joan behar dute. Zuzendaritzak taldeak batu eta ordutegiak berrantolatuko ditu. Jardueran parte hartzen duten irakasleek zaintzetarako lana utziko dute.
- Ondoren datozen arrazoiengatik, ikasle bati eskolaz kanpoko jarduera batean parte hartzea debekatzen ahal zaio:
 - Azken ebaluaketan 4 suspentso edota 4 suspentso baino gehiago izatea (salbu institutuaren heziketa helburuak betetzen baditu).
 - Klaseetara eginiko huts egiteen metaketagatik bizikidetzaren aurkako hutsegite larri bat izatea.
 - Bizikidetzaren aurkako hutsegite oso larri bat izatea.
 - Bizikidetzaren aurkako hutsegite larri bat edota oso larri bat izatea azken eskolaz kanpoko jardueran.
- Nahiz eta bizikidetzaren aurkako hutsegite larririk izan ez, eskolaz kanpoko jarduera bati begira ikasle baten ohiko portaera ezegokitzat jotzen bada, irakasle laguntzaileek debekatzen ahal diote delako jardueran parte hartzea.
- Ez da sakelako telefonorik eraman behar. Telefonoa eraman ezkeror, erabilgarritasuna irakasleek murriztu eta kontrolatuko dute. Urgentziazko deietarako, institutuaren sakelako telefonoa erabiliko da. DBH 4ko eta 2. batxilergoko ikas-bidaietan ez da horrelakorik aplikatuko.
- Irakasle laguntzaileek ez dute inolako ardurarik hartuko, ikasleei zerbait ebatsi edota galtzen bazaie.
- Ikasle baten portaerak bizikidetzan zein jardueraren garapenean arazoak sortzen baditu, familiari jakinaraziko zaio, eta, ondorioz, bere bila etorri eta etxera eraman beharko dute.
- Ikasle batek kalteak eragiten baditu materialean, instalazioetan edota jarduera egiten den inguruetan, ordaindu egin beharko ditu.
- Ikasle guztiek taldeak erabiliko duen garraio-bide bera erabiliko dute, salbu legezko tutoreek jarduera egin baino lehen justifikazioren bat igortzen badute.
- Gainontzeko kontuetan institutuaren Bizikidetzara Araudia aplikatuko da.
- Jarduera Osagarrien eta Eskolaz kanpoko Plan Eskola Kontseiluari aurkeztu eta honek onartu beharko du urtero.

8. HUTSEGITE ARRUNTAK (BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAK)

8.1 Sarrera

- ❑ **Ikasgelako eremua:** hutsegite arruntek diziplina txostena ekarriko dute. Ikasgelako eremuan konponduko dira, eta zuzendaritzak erregistratu eta tramitatuko ditu. Eta irakaslea izanen da portaera ezegokia zuzentzeko asmoz izaera hezitzailea izanen duten neurriak ezartzeko arduraduna.
Zernahi gisa ere, batzuetan nahitaezkoa izanen da zuzendaritzaren parte hartzea, baina horrek ez du erran nahi ekintza horiek hutsegite larria ekarriko dutenik edota auzibide edo espedienteak abiarazi behar denik horrengatik. Hala ere, garbi izan behar da prozedurak ez dakarrela berarekin malgutasunik eza.
- ❑ **Institutuko eremua:** instituturako araudia bete ez eta bertan ezartzen diren ondorioak asumitu ezean, irakasleek --zaintzan egon zein ez-- eta langile ez-irakasleek komunak

diren eremuetan (pasabideak, jolastokiak, eta abar) egiten diren hutsegiteak tramitatu beharko dituzte diziplina txosten baten bitartez.

8.2. TIPIFIKAZIOA

Bizikidetzaren aurkako portaerak:

a) Ikasgelako arautegia ez betetzea.

b). PORTAERA DISRUPTIBOAK ETA LAN FALTA IKASGELAN

b.1) Eskola-orduan zehar ez ikastea edota ikaskideek ikasteko duten eskubidea eta betebeharra eragozten ahal dituen edozein portaera erakustea.

b.2) Ikaslearen lan falta etengabea, etxean zein ikasgelan.

b.3) Ikasgelara behar den materiala ez eramatea, horren ardura ikaslearena denean.

b.4) Azterketa, proba zein ariketetan kopiatzea edota ikaskideei bide ematea haiek ere kopia dezaten.

c) Justifikatu gabeko hutsegiteak eta puntutasun faltak.

d) Institututik alde egitea baimenik gabe.

e) ERRESPETURIK EZA

e.1) Irakaslearen autoritatea ez errespetatzea, eta ikastetxeko langileei arretagabe erantzutea.

e.2) Institutuko kideak, ikasleak zein langile ez-irakasleak, begirunegabe erabiltzea.

e.3) Materiala hondatzea:

◊ Arduragabekeriak jokatzeagatik edota nahita egiteagatik, ondokoetan gertatzen ahal diren hondatze arinak: institutuko instalazioak eta materiala, eskola-garraioa, bisitatu diren tokiak, eta ikaskideen gauzak.

◊ Institutuko instalazio, ondasun, material zein inguruko eremuaren garbiketari kalte ekartzea, baita eskola-garraio zein bisitaturiko tokietakoari ere. Eta batez ere pintaketak hartuko dira kontuan.

a) Zuzendaritzak baimendu gabeko talde-hutsegiteetan parte hartzea.

b) Institutuko langileekin gezurretan aritzea edota informazio faltsua ematea, baldin eta aipatu langileak ez baditu serioski kaltetzen.

c) Ikaslea nor den jakitea ezinezko egiten duten arropak eramatea.

d) Ikasgelan telefonoak, musika aparatuak eta antzekoak erabiltzea.

e) Institutuko eremuak, materiala eta hornikuntzak baimenik gabe erabiltzea, edota baimenduak ez diren bertzelako helburuetarako erabiltzea.

f) Norberaren garbitasun zein txukuntasunean axolagabe jokatzea.

g) Tabakoa erretzea eskola-eremuan.

h) Dokumentu honek arautzen duen bizikidetzaren aurkako edozein ekintza egitea eskola-garraioan.

i) Eskola-jarduera eragozten ahal duen bertz edozein jokamolde erakustea, baldin eta institutuaren bizikidetzarako bereziki larria ez den ekintza bada.

j) Legeak ezarritako eskubideen zein institutuaren balore eta ideien aurkako adierazpenak egitea.

2. ONDORIOAK (HEZIKETA-NEURRIAK)

2.1 Irakasleek hartu beharreko neurriak

- 1) Bere ikaskideek duten ikasteko eskubidea eragozten duen ikaslearekin hitz egin eta zer bait adostu.
- 2) Atsedenaldiak erabili ikasleak egin d(it)uen kaltea(k) konpontzeko edota erakutsi duen portaera bideratzeko baliagarriak izan daitezkeen jarduerak egiteko.
- 3) Klaseetarako beharrezkoa den materiala ekartzen ez duten ikasleen familiekin konpromiso batzuk ezarriko dira.
- 4) Eskola-orduan ikaslea kanporatu, baldin eta bere portaerak eskola normaltasunez emateaeragozten badu.
- 5) Atzerapenak jaso egingen dira, baina ikasleari ikasgelan sartzen utziko diogu. Bi atzerapenak hutsegite bat ekarriko dute.
- 6) Sei falta betetzean, tutoreak ikasketa buruei falten informea eta diziplina informea bidaliko dizkie. Ikasketa burutza izango da familiekin komunikatu eta oharra emango diena.
- 6) Hutsegiteak tutoreak jakinaraziko dizkio familiari; horretarako, sei hutsegite metatu behar dira eta ondoren azaltzen den gisan: 6 hutsegite - 12 hutsegite - 18 hutsegite, eta abar. Ikaslearen eskolaratzea ohikoarekin bat ez badator, Gizarte Zerbitzukoiei jakinarazi beharko zaie.

Ebaluaketa batean justifikatu gabeko 18 hutsegite metatzen badira, bizikidetzaren aurkako jokabide larritzat hartuko da.

- 7) Zenbait lan eginarazi ikasleari, eskola-orduetan zein kanpokoetan. Lan horien helburua izanen da institutuko pertsonei zein ondasunei eginiko kalteak konpontzea, eta nolabaiteko hobekuntza ekarri beharko dute. Lan horiek ez dute delako ikaslea bere eskola erantzunkizunetatik salbuetsiko.
- 8) Ikasgelan telefonoak, musika aparatuak edo antzekoak erabiliz gero, irakasleak hartu egingen ditu; ondoren, eta familiarekin mintzatu eta gero, erabaki beharko du noiz itzuli; 3 eta 5 egun bitartean gordetzen ahal ditu. Material hori ikasketa buruak, edota berak baimenduriko bertze norbaitek, gorde eta itzuliko du.
- 9) Ikasle bati telefono mugikorra kentzen zaionean, gurasoek etorri beharko dute aparatuaren bila ikastetxera.

2.2 Zuzendaritzarekin batera hartu beharreko neurriak

- 9) Eginiko hutsegiteak neurri gogorragoak eskatzen baditu, erabaki liteke delako ikasleari, 3 eskola-ordutan gehienez, halako arlo bateko eskoletara joaten ez uztea. Erabaki hau Ikasketaburutzarekin batera hartuko da, behin tutorearen azalpenak aditurik. Delako arloko irakasleak zenbait eskola-jarduera emanen dizkio ikasleari, eta Zuzendaritzak antolatuko ditu arreta ordu horiek.
- 10) Ikasle batek 12 hutsegite egiten baditu, bi egunetan gelditu beharko da zapigarren orduan zenbait lan egiten.
- 11) Ikasle batek 18 hutsegite egiten baditu, lau egunetan gelditu beharko da zapigarren orduan zenbait lan egiten.
- 12) Ikaslearen familiak ez badu behar bezala laguntzen bere seme-alabak beharrezkoa den materiala ekar dezan, Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie edota komunitaterako zerbitzuak ezarriko zaizkio delako ikasleari.
- 13) Ikasle batek ikasgelan edota ikasgelatik kanpo kalteren bat egiten badu, ordaindu egin beharko du. Horrelakoetan, idazkariari jakinaraziko zaio, eta bera arduratuko da kalteen balorazioaz eta kobratzeaz. Kalte materialak egiteagatik, ikasleak zenbait lan egin beharko ditu eskola-orduetan zein eskolaz kanpokoetan.
- 14) Ikasle batek edo gehiagok zuzendaritzak baimendu gabeko lekuren bat erabiltzen badute, irakasleek edota bertzelako langileek hala eskaturik, utzi egin beharko dute, eta, kalteren

bat eginez gero bertan, ordaindu egin beharko dute edota zenbait lan egin beharko dituzte eskola-orduetan zein eskolaz kanpokoetan.

- 15) Ikasgelan edota ikasgelatik kanpo eginiko kalteen ordainketa. lehenik, idazkariari erranen zaio, eta honek kalteen balorazioa egiteaz gain, kobrantzaren kudeaketa segurtatuko du. Kalte materialek eskola ordutegian edota eskolaz kanpokoan egin beharreko lanekin loturiko zigorra ekarriko dute.
- 16) Eskola-garraioan hutsegiteren bat egin duen ikasle bati sarrera debekatu ahal izanen zaio delako garraioan, itzulerako bost bidaia gehienez. Zuzendaritzak emanen dio familiari neurri horren berri, eta idazkariak garraioaren arduradunei.
- 17) Batzuetan ikasleari debekatzen ahal zaio jarduera osagarri zein eskolaz kanpokoetan parte hartzea. Horrelakoetan, ikasketa burua izanen da arduraduna.
- 18) Batzuetan, eta gehienez bost eskola-egunetan, aldatzen ahal zaizkio ikasleari institutuaren eskola-ordutegiko sartu-aterak.
- 19) Ikasketa buruak baloratu eta erabakiko du zer egin legeak ezarritako eskubideen zein institutuaren balore eta ideien aurkako adierazpenak egiten badira.

Zuzendaritzak neurri horiek irakasleen zein tutoreen txostenak aztertu ondotik hartuko ditu.

Prozedura (Diziplina txostena)

Ikasgelako eremua:

- ☐ Irakasleak txostena bete eta elkarrizketa bat izanen du ikaslearekin, eta gero hezkuntza neurriak hartuko dira (txostenean iradokitzen direnak edota irakasleak egokiak ikusten dituenak). Elkarrizketan ikasleari ikusarazi beharko zaio bera dela portaeraren erantzulea eta, ondorioz, asumitu egin beharko dituela portaera ezegokiak ekartzen dituen ondorioak. Gisa berean, irakasleak ikaslearen beharrak aztertuko ditu, eta saiatuko da egoera zuzenduko duten adostasunak bilatzen.
- ☐ Elkarrizketa egin eta hezkuntza neurriak ezarri ondotik, irakasleak zuzendaritzara eramanen du txostena eta kopia bat emanen dio tutoreari. Zuzendaritzak ikasleek eginiko hutsegiteen erregistroa izanen du.
- ☐ Konpromisoak betetzeko epea akitu ondoan, irakasleak aula birtualeko email baten bidez zuzendaritzari jakinaraziko dio delako ikasleak portaera zuzendu duen ala harturiko neurriek eragina izan ez duten. Eta hori guztia diziplina txostenean agertuko beharko da.
- ☐ Portaera zuzendu ezean edo portaerak konpromezua behar ez duenak:
 - a) Zuzendaritzak familiari idatziz jakinaraziko dio, eta hutsegitea kontuan hartuko da bizikidetzarako bereziki kaltegarria izan daitekeela kontsideratzean.
 - b) Irakasleak edota tutoreak elkarrizketa bat eginen dute familiarekin, portaera zuzentzeko erabakiak hartzeko asmoz.
- ☐ Huts egiteak justifikatzeko agiriak edo justifikanteak tutoreari ematearen ardura ikaslearena da. Eta agiri horiek, huts egitea egin zeneko egunetik hasita, hiru eguneko epean eman beharko dira.

Institutuko eremua:

- ☐ Irakasleek, zaintzan egon ala ez, eta langile ez-irakasleek uste dutenean portaera batek hutsegite arrunta ekar dezakeela, txosten bat bete eta zuzendaritzara eramanen dute, eta tutoreari kopia bat emanen diote.

- ❑ Zuzendaritzak eta txostena bete duen pertsonak erabakiko dute zein hezkuntza neurri hartu.

9. HUTSEGITE LARRIAK (BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK IZATEN AHAL DIREN PORTAERAK)

9.1. SARRERA

Ikasle batek hutsegite larri bat egiten du hutsegite arinak metatzen zaizkionean edota larritzat jotzen den ekintza bat egiten duenean.

9.2. TIPIFIKAZIOA

1. Hutsegite larriak dira institutuaren bizikidetza larriki aztoratzen duten portaerak. Hona banan-banan adierazirik:

- a) Konponbide onik izan ez duten hutsegite arinen metatzea: 4 eta 6 arteko hutsegite arinek bizikidetzaren aurkako hutsegite larria dakarte.
- b) Ikasleak ez badu behin eta berriz eskolarako beharrezkoa den materiala ekartzen.
- c) Institutuko edozein kideren aurka egiten ahal diren irain, laido, gezur beltz, tratu txar fisiko zein psikiko, umiliazio eta jazarpenak. Eta bereziki kontuan hartuko dira osagai sexual, arrazista, xenofoboa dutenak, eta, ezaugarri pertsonalengatik zein arazo ekonomiko, sozial zein heziketa mailakoengatik, ahulagoak edo erasotzen errazagoak diren pertsonen aurka egiten direnak.
- d) Eskola-orduetan eta edozein heziketa jardueratan, zuzendaritzak baimendu ez dituen bertzelako helburu batzuk izan ditzaketen testuak, irudiak, soinuak eta, oro har, pertsonen bizitza pribatuaren eszenak grabatzea.
- e) Aitzineko atalean adierazitako portaerak edozein bitartekari elektronikoren bidez zabaltzea.
- f) Hondatze larriak egitea institutuko instalazio, material eta dokumentuetan; baita eskola-garraioan, bisitatu diren tokietan eta hezkuntza komunitateko kide guztien gauzetan ere.
- g) Institutuaren ondasunak edota edozein kideren gauzak ebastea.
- h) Eskola eremuko ekitaldietan iruzurrezko ordezteak egitea, eta dokumentu akademikoak faltsutzea edota ebastea. Bereziki larritzat joko da azterketa erreduak edota erantzunen kopiak ebastea, baita horiek zabaldu, gorde, erosi edota saltzea.
- i) Bizikidetzarako bereziki kaltegarria izaten ahal den portaera baten jakitun izan eta zuzendaritza edota tutoreari ez jakinaraztea, beti ere mehatxupean edo bertzelako presiopean ez dagoela frogatzen bada.
- j) Obedientzia ukatzea dakarten portaerak, batez ere ezarritako heziketa-neurriak betetzen ez direnean.
- k) Konstituzioan ageri diren eskubideen eta libertateen aurka edota terrorismoaren apologia egiten duten afixak, pintaketak eta bertzelako idazkiak egitea.
- l) Eskola-eremuan drogak eta edari alkoholduak hartzea, eta tabakoa behin eta berriz erretzea, edota halako portaeretara bultzatzea.
- m) Estupefazianteak banatzea.
- n) Bizikidetzaren aurkako portaerak errepikatzea.
- o) Institutuko jardueren garapena eragozten duen edozein gisagabekeria edo ekintza.

p) Hutsegiteen edota atzerapenen metatzeak ebaluazio jarraiarekiko eskubidea galtzea ekar lezake. Departamentu bakoitzak erabakiko du hutsegite kopurua irakasgai bakoitzean. Ezarritako hutsegite portzentaia % 15ekoa da.

2. Bizikidetzarako bereziki kaltegarria izaten ahal den portaera baliogabe geldituko da, baldin eta, ekintzaren egilea ezagutzen denetik eta ondoko hirurogei eskola-egunetan, prozeduraren hasieraren jakinarazpena egin ez bada.

ONDORIOAK (HEZIKETA-NEURRIAK)

1. Hona Bizikidetza Arautegian biltzen diren bizikidetzaren aurkako bereziki kaltegarriak izaten ahal diren portaeren aurrean ezarriko diren heziketa-neurriak:

a) Zenbait lan eginarazi ikasleari eskola-orduetatik kanpo. Lan horien helburua izanen da institutuko pertsonei zein ondasun, material eta dokumentuei eginiko kalteak konpontzea, baita eskola-garraioan egiten direnak ere. Idazkaria arduratuko da kalteen balorazioaz eta kobratzeaz.

b) Diziplina-prozedura irekiko zaio ez badu behin eta berriz ekartzen institutura beharrezkoa den materiala.

c) Ikasleari debekatzen ahal zaio, ikasturte osoan edota zati batean, jarduera osagarri zein eskolaz kanpokoetan parte hartzea. Horrelakoetan, ikasketa burua izanen da arduraduna.

d) Ikaslea taldez aldatzea behin betiko.

e) Ikasleari eskoletara joatea debekatzen ahal zaio, gehinez hamabost eskola-egunetan. Debekua indarrean dagoen bitartean, ikasleak erabaki diren heziketa-jarduerak egin beharko ditu, bere heziketa zein ebaluazio prozesua geldi ez dadin. Horretarako, irakasleek, tutorearen koordinaziopean, lan-egitasmo bat prestatuko dute. Irakasleek ikasleak egitasmo horren barnean egiten dituen jardueren gainean egon beharko dute, eta kontuan hartuko dira ikasgaien azken ebaluaketan. Halaber, lan-egitasmo horrek dirauen bitartean, ikasleak ebaluaketako proba objektiboak egin ahal izanen ditu.

Gainera, zuzendaritzak ikusten badu adingaberen bat halako egoera bereziki arriskutsuan dabilela, edota babesik gabeko bertzelako egoera batean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arduradunei jakinaraziko die.

f) Eskola-garraioan hutsegite larriren bat egin duen ikasle bati sarrera debekatu ahal izanen zaio delako garraioan, gehienez hamabost eskola-egunetan. Zuzendaritzak emanen dio familiari neurri horren berri, eta idazkariak garraioaren arduradunei.

g) Salbuespen gisa, hezkuntza-komunitatea larriki asaldatzen ahal duen egoeraren bat gertatuz gero, Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia jasorik eta Eskolaratze Batzordearekin hitz egin eta gero, proposatu ahalko da ikastetxez aldatzea edota eskolatze-modalitatea. Aldaketa egitekotan, kontuan hartuko dira ikaslea matrikulatua egon deneko eskola-sare eta eredia.

h) Ikasleak eginiko zenbait hutsegiteren kasuan, Bizikidetza Batzordeak onar lezake delako ikaslea "Denbora kanpoan" izeneko proiektuan aritzea. Proiektu hori Hezkuntza Departamentuak, Estella-Lizarrako Udalak, San Jeronimo Egoitzak eta Gurutze gorriak adostu zuten.

2. Nahi izanez gero, zuzendariak, behin betiko heziketa-neurriak hartu aitzinetik, kautelazko neurriak har litzake. Hona zeintzuk diren:

a. Taldez aldatzea denbora baterako.

b. Zenbait eskolatara joatea debekatzea, baita zentroan sartzea ere.

c. Jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan parte hartzea debekatzea.

d. Institutuak dituen zerbitzu osagarrien erabilpena debekatzea.

Prozedura (Eranskina: Auzibidea edo Espedientea)

1. Bizikidetzarako bereziki larria izan daitekeen portaera edota bere ondorioak zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio, ahalik eta lasterren jakinarazi ere. Zuzendariak irakasle baten esku utziko du kasuaren bideratzea edo instrukzioa. Ikasturte hasieran egingen den letra zozketaren bitartez, erabakiko da nor hasiko den instruktore gisa. Ikasketaburutzak eramanen du horren kontrola. Nortzuk ez dira halako kasuetan instruktore izaten ahal. Alde batetik, bizikidetzaren aurkako jokaera bereziki larria izan duen ikaslearen irakasleak direnak; bertzetik, Eskola Kontseiluko Diziplina Batzordeko kideak diren irakasleak.

2. Hiru eguneko epe hori iragan ondotik ez bada -edo ez badira— erantzulea(k) d(ir)en pertsona(k) identifikatu, instruktoreak jarraitu ahal izanen du beharrezkoak izan daitezkeen ekintzak egiten erantzulea(k) identifikatzeko, eta dagokion prozedura abiarazi ahal du gehienez 10 eskola eguneko epean.

3. Ohiko prozedura hasiko da hasteko dokumentua ikasleari, gurasoei edo ordezkari legalei eta instruktoreari ematearekin batera.

4. Zuzendariak, behin betiko hezkuntza neurriak aplikatu baino lehen, kautelazko neurriak ezarri ahalgo ditu. Kautelazko neurri horiek prozedura bukatu arte mantendu ahalgo dira. Irakasleak erraslbuzko neurri baten eraginpean emandako denbora kendu edo deskontatu egingen zaio hezkuntza neurrian ezartzen den denboratik.

5. Ohiko prozeduraren **HASIERAKO DOKUMENTUA** zuzendaritzak egingen du, eta bertan ondoko atalak ageriko dira:

- Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
- Prozedura irekitzea ekarri duten egintzak eta frogak.
- Zuzendu beharreko portaera, hautsitako arauak, data eta tokia.
- Inplikaturako ikaslea.
- Tramitazioaren ardura duen instruktorea, ikastetxeak Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezartzen duen sistemaren bidez klaustroko kideen artean hautatua.
- Aplikaturako kautelazko neurriak, halakorik bada.
- Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- Alegazioak egiteko prozedura eta epeak, adieraziz alegaziorik aurkeztu ez bada, egintzak frogatutzat joko direla eta prozedura hasteko dokumentua prozedurari bukaera emateko ebazpentzat hartuko dela.
- Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

6. Aurreko puntuan aipatzen den dokumentuan, zuzendaritzak proposatzen ahalgo du **PROZEDURAREN** tramitazioa foru dekretuaren **23. artikuluan** ezarri bezala egitea, kontuan harturik aurretik hartan ezarritako salbuespenak. Hasiera emateko dokumentuan proposatu ahalgo da egindako hutsegitearen ebazpenaren adostutako modura biltzea, baldin eta ikasturte berean ez bazaio bertze prozedurarik tramitatu, eta aldez aurretik ezarritako hezkuntza neurriarik hautsi ez badu. Nolanahi ere, aztertutik zeintzuk diren hutsegitearen larritasuna eta inguruabar astungarriak, zuzendaritzak eta instruktoreak erabakiko dute adosturiko prozedura planteatzerik baden ala ez.

Irakasleak onartu egin beharko du portaera, eta barkamena eskatu beharko die kaltetuei, baldin eta halakorik balego.

Prozedura honetara bildu ahal izateko, familia eta ikaslea instruktorearekin eta zuzendaritza taldeko kide batekin bildu beharko dira, hasierako gutuna jaso eta gehienez ondoko bi egunetan.

Adosturiko modura bilduz gero, hasiera emateko dokumentuan proposatu diren neurriak bertan behera geldituko dira, eta izaera arinagoko bertze neurri batzuegatik ordezkaturiko dira. Gainera, adosturiko moduak hutsegitea onartzea ekartzen du, baita portaera zuzentzeko konpromisoa ere.

7. **Alegazioak**, zuzendariari zuzenduak, ikastetxean aurkeztuko dira, idatziz, prozedura hasteko jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi eskola eguneko epearen barruan. Idazki horretan, halaber, instruktorea errefusatzeko eskaera arrazoitua egiten ahalko da.

8. Errefusatzeko den instruktoreak adieraziko du alegatutako zergatia baden edo ez. Errefusatzeko idazkia aurkeztu eta hurrengo eskola egunean, zuzendariak horren gaineko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

9. Ezarritako epean alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatutzat hartuko dira eta prozedura hasteko dokumentua prozedura bukatzeko ebazpentzat hartuko da.

10. Ikasturtearen hasiaren, Eskola Kontseiluko Bizikidetza Batzordeak instruktoreen izendapena egiteko zein letratetik hasiko den zozketatuko du. Ikasketaburutzak aldian behin batzorde horri bizikidetzaren aurkako bereziki larriak diren hutsegiteen berri emanen dio, baita haien haien inguruko erabakien berri ere. Hutsegite larri baten instruktoreak hura konpontzeko arazorik balu, kasu hori diziplina batzordearen esku utzi ahalko du, honek konpon dezan.

11. **Instruktorearen inguruan**. Ikasturtearen lehen klaustroan, zuzendaritzak irakasleei adieraziko die zein izanen den zozketan atera den letra, eta letra hori kontuan harturik hasiko da instruktoreen izendapena. Inplikaturako ikaslearen tutorea eta irakasleak ezin izanen dira instruktore izan. Halaber, salbuetsirik geldituko dira zuzendaritza taldeko kideak, orientatzaileak eta bizikidetzareko lan taldean ari direnak.

Alegazioak eta prozeduraren ebazpena.

1. Ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak alegazioak aurkeztuz gero ezarritako epean, instruktoreak, bere agintea erabiliz, egoki iruditzen zaizkion jarduketak eginen ditu egintzak argitzeko. Alegazioak aurkeztu eta zortzi eskola eguneko epean gehienez, eta alegazioak kontuan harturik, ebazpen proposamena prestatu eta zuzendariari aurkeztuko dio. Proposamen horretan alderdi hauek jasoko dira:

- Frogatutzat hartzen diren egintzak eta hori egiaztatzen duten frogak.
- Zuzendu beharreko portaera, hautsitako elkarbizitza arauak, data eta tokia.
- Inplikaturako ikaslea.
- Aplikaturako kautelazko neurriak, halakorik bada.
- Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- Aplikatu beharreko hezkuntza neurrien proposamena.

Zortzi eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, instruktoreak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu.

2. Ebazpen proposamena aurkeztu eta biharamunetik hasita bi eskola eguneko epean gehienez, zuzendariak prozedura bukatzeko ebazpena emanen du. Bi eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, zuzendaritzak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu. Ebazpen horretan honako hauek adieraziko dira gutxienez:

- Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
- Frogatutako egintzak eta zuzendu beharreko portaerak.
- Inguruabar astungarriak eta aringarriak, horrelakorik baldin badago.
- Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak eta, hala badagokio, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

3. Ohiko prozeduraren ebazpenaren berri ikasleari eta bere gurasoei edo legezko ordezkariari emanen zaie, idatziz baten bidez, ondoko eskola egunean.

4. Ikastetxeak, Bizikidetzaren Araudian, bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura ezarriko du, betiere foru dekretu honen 12. artikuluan ezarritakoa bermatuz.

5. Nolanahi ere, ohiko prozeduraren tramitazioa hogeita hamar eskola eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasieraren jakinarazpenetik hasita interesdunari edo, hala badagokio, familiari jakinarazten zaion arte. Bestela, prozedura iraungitzat hartuko da.

Laburpen taula

Espediente instrukzioaren urratsak		
Jarduketa	Dokumentua	Epea
1. Hutsegitearen jakinarazpena	Lekukoaren jakinarazpena	
2. Instruktoarearen izendapena eta ekintzen ikertzea	Izendapenaren gutuna	1.-3. eguna
3. Prozeduraren hasiera	Familia, ikasle eta instruktoareari igorri beharreko gutuna. Edukia: · Araudia · Instruktoarearen izen-abizenak · Egintzak eta hautsiriko araua · Kautelazko arauak (halakorik hartuz gero) · Proposaturiko hezkuntza neurriak · Prozedura adostuaren proposamena eta elkarriketarako deia eta hitzordua* · Alegazio moduak	3.-4. eguna
4. Prozedura adostuaren kasuan, familiarekiko elkarriketa	· Hitzarturikoak bilduko dituen elkarriketaren akta	6. eguna

Ohiko prozeduraren kasuan, proposaturiko neurriak ezarriko dira, eta hasiera emateko komunikazioa ebazpen komunikazioa ere izanen da.

Prozedura adostuaren kasuan, hitzarturikoak bilduko dituen elkarriketaren aktak ebazpen izaera izanen du.

10. ESKOLETARA EZ JOATEA: PROPOSAMENA

Eskoletara ez joatea eta azken ebaluazioa.

Eskola jardueretara behin eta berriz huts egiteagatik, ezinezkoa bada ikasle bati etengabeko ebaluazioaren prozedura aplikatzea, azken ebaluazioa egiteko eskubidea beti bermatuko da. Eskoletara behin eta berriz huts egitea eta horren ondorioak ikastetxeko Elkarbizitzaren Erregelamenduan zehaztuko dira. Era berean, ikastetxeek azken ebaluazioaren egitura zehaztu beharko dute, irakasgai, eremu edo modulu bakoitzaren izaeraren arabera.

Hirugarren xedapen gehigarria.-DBHko hirugarren mailatik aurrera, eskoletara ez joateko eskubidea.

1. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren mailatik aurrerako ikasleek eskolara ez joateko taldeka hartzen dituzten erabakiak ez dira justifikatu gabeko hutsegite gisa hartuko, baldintza hauek betetzen badira:

a) Hezkuntza arloko erabakiekiko desadostasunengatik izan bada.

b) Ikastetxeko zuzendaritzan eta ordezkarien batzarrean aurkeztutako proposamena, deialdia egiten dutenek sinatutako idazki arrazoitu baten bidez. Idazkia hutsegitearen eguna baino gutxienez hiru eskola egun lehenago aurkeztu beharko da, eta deialdiaren arrazoiak, dei-egileak, eguna eta ordua aipatu beharko dira.

c) Proposamena ikastetxean DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasle guztien %15ek sinatu beharko dute gutxienez, edo DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasleen ordezkarien %75ek.

d) Ikasleek, bozketa sekretuaren bidez, eskolara ez joateko proposamena onartzea edo errefusatzeko gehiengo osoz, ordezkariaren argibideak jaso ondoren. Guztirako emaitza eta gelaz gelakoa ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkio ordezkarien batzarrak, aurreikusitako jarduketak hasi baino bi eskola egun lehenago gutxienez.

2. Ikastetxeko zuzendaritzak aztertuko du betebeharrak horiek betetzen diren eta, horren arabera, ebatziko du eskolara ez joate hori justifikatu gabeko hutsegitez hartzen den edo ez. Ebazpen horren berri DBHko hirugarren mailatik aurrerako ikasleei, irakasleei, ordezkarien batzarrari eta ikastetxeko guraso elkarteetako buruei jakinaraziko zaie idatziz.

3. Dena dela, ikastetxeko zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu eskolara huts egiteko erabakia betetzen ez duten ikasleek foru dekretu honen 4. artikuluan aipatzen diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.

ERANSKINAK

III ERANSKINA



Instituto de Educación Secundaria
Tierra Estella
Lizarralde
Bigarren Hezkuntza Institutua

BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAK: KONPROMISOA

Irakaslea

Ikaslea

Maila eta taldea

Data

A) HUTSEGITEAREN DESKIPZIOA:

B) IKASLEAREKIKO ELKARRIZKETA ETA HEZKUNTZA-KONPROMISOA. Ikaslearekin hitz egin eta gero hartu beharreko neurriak. Ezarri epeak.

	Kalte materialen konponketa. Zehaztu (garbiketa, ordainketa...):
	Kalte moralen ordaina (barkamena eskatu...)
	Atsedenaldietan egin beharreko lanak. Zehaztu:
	Kanporaketa eta aginduriko lanak.
	Bertzerik:

Ikaslearen sinadura

Irakaslearen sinadura

C) ZUZENDARITZARI ETA TUTOREARI IGORRI BEHARREKO JAKINARAZPENA (Konpromisoan ezarritako epea bete eta gero).

☐

Ikasleak ez ditu bete konpromisoak

Sinatua:

Data:

*“Konpondu gabeko gatazkak nahasmendua eta ezinegona ekartzen dizkigu”
(Jaume Soler)*





Instituto de Educación Secundaria
Tierra Estella
Lizarralde
Bigarren Hezkuntza Institutua

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK

_____jauna/andrea:

*IES Tierra Estella-Lizarralde BHI*ren Bizikidetza Araudian ezarritakoari jarraikiz, Institutu honetako zuzendariak erabaki du zu izendatzea Instrukzio Epaile.

Hori dela eta, Instrukzio Epaile gisa arituko zara DBH/BATXILERGOko

_____ ikasleari bizikidetzaren aurkako portaera larriengatik ireki zaion Diziiplina Espedientean, eta halaxe jakinarazten dizut indarrean dagoen araudiari men eginez.

Erraiguzu, arren, noiz eta zein ordutan elkartu nahi duzun ikaslearen guraso edota ordezkari legalekin, ikasketaburutzak hitzorduaren xehetasunak helaraz diezazkien.

Estella-Lizarra, 20....-(e)ko-arena

Zuzendaria:

Antonio Ros Zuasti

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

LEKUKOAREN JAKINARAZPENA IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI
--

..... jaun edo andereak, zenbakiko NA duenak,
 den aldetik,(e)an gertatutakoa jakinarazi dio
 ikastetxeko zuzendaritzari:

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.:

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

PROZEDURA ARRUNTA ABIARAZTEKO DOKUMENTUA¹

Espediente-zk.:

201.. / 201.. Ikasturtea

Antonio Ros Zuasti jaunak, Lizarraldea BH, ikastetxeko zuzendari den aldetik,(e)an gertatutakoari buruzko beharreko informazio guztia bildu ondoren, ikasleari bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerei aurre egiteko hezkuntza-arloko neurriak ezartzeko prozedura arrunta abiatzea erabaki du, Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako bizikidetzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuak xedatzen duenarekin bat, ikastetxeko bizikidetzaraudiak dioenari jarraituz.

Noiz izan zuen gertaeren berri:

Non jaso ziren gertaerak:

Noiz jakin zuen nor izan zen egilea:

Prozedura abian jartzea eragin duten egitateak eta frogak:

Zuzendu beharreko jokaera:

Urratutako arauak:

Bideratzailea:

Kautelazko neurriak:

Aringarriak, hala badagokio:

Larrigarriak, hala badagokio:

Hartu beharreko hezkuntza-arloko neurria eta horretarako baliabideak:

- Aringarria bete dela baieztatzen bada:
- Aringarria betetzeak porrot egiten badu :

Neurriak hartzen hasteko eguna²⁻³:

Neurriak amaitzeko eguna ³:

Prozedura hitzartua bideratzeko aukera (47/2010 FDko 23. art.)

Badagokio, ikasleak 23. artikuluko baldintzak betetzen dituelako.

- Ikaslea eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariak ikastetxe honetan(e)ane(t)an egingo dugun bilerara deitu ditugu, prozedura hitzartuaren abantailak azaltzeko eta prozedura hori erabili edo ez erabili erabakitzeko.
- Ikaslea eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariak bilerara etortzen ez badira edo prozedura hitzartuari uko egiten badiote, prozedura arrunta bideratzen jarraituko dugu.

Ez dagokio, ikasleak ez dituelako betetzen 23. artikuluko baldintzak.

Alegazioak. Bideratzailea ezestea.

- Ikasleek edo haien legezko ordezkariak egoki deritzeten alegazioak aurkez ditzakete dokumentu honen edukiaren kontra, zuzendariarentzako idatzi baten bitartez. Alegazioekin batera, interesgarri deritzeten dokumentu guztiak aurkeztu behar dituzte. Epe hau dute horretarako:
- Prozedura arrunta bideratuz gero, bi eskola-egunekoa, dokumentu hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.
- Prozedura hitzartua bideratzeko aukera eman eta interesdunak bilerara etortzen ez badira edo prozedura hitzartuari uko egiten badiote, bi eskola-egunekoa, bileraren eguna igaro eta hurrengo egunetik hasita.
- Bideratzailea ezesteko oinarriak izanez gero, ezetsi egin daiteke, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. artikulua xedatzen duen arrazoi bat argudiatuz.

Prozedura bukatzeko ebazpena. Erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

- Ikasleak edo haren legezko ordezkariak alegazioak aurkezten ez badituzte edo epez kanpo aurkezten badituzte, gertaerak frogatutzat hartuko dira eta prozedura abian jartzeko dokumentu hau prozedura amaitzeko ebazpentzat hartuko da.
- Prozedura amaitzeko ebazpena jasotzen den egunetik, eta bi eskola-eguneko epean, hartzen den hezkuntza-arloko neurria berrikusteko erreklamazioa jar dezakete interesdunek, Eskola Kontseiluko presidentearentzako idatzi bidez.
- Ikastetxe publikoetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Itunpeko ikastetxeetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak, berriz, jurisdikzio zibilean jarri behar dute errekurtsoa.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izptua.:

Neurriak irakurri eta onartzen ditut:

Izptua: _____ (aita/ama/ikaslea)

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

PROZEDURA ARRUNTA HASTEKO JAKINARAZPENA
--

Espediente-zk:..... 201.. / 201.. Ikasturtea

..... ikasleari espedientea abian jartzeari dagokion prozedura arrunta jakinarazteko dokumentua emateko, pertsona hauek etorri dira Lizarralde BHI, ikastetxera(e)ane(t)an:

Ikaslearen izenean	Institutuaren izenean

Bista horretan bertan, prozedura arrunta hasteko dokumentua emateaz gain, dokumentuaren edukia azaldu zaie bertaratuei.

Egintza hau egin izanaren frogagarri, dokumentu hau sinatu dute bertaratuek:

Ikaslearen izenean

Ikastetxearen izenean

Bertaratuak

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

BIDERATZAILEA EZESTEKO IDATZIAREN ERANTZUNA
--

Espediente-zk.: 201.. / 201.. Ikasturtea

..... ikaslearen kontrako espedientearen bideratzailea,
..... jaun edo anderea ezesteko idatzia aztertu eta zera finkatu du
sinatzaileak:

- Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. artikulua xedatzen duenarekin bat, argudiatutako arrazoiak bideratzailea ezesteko arrazoi [izan daitezkeela / ezin izan daitezkeela].

- Bideratzaileak bera ezesteko argudiatutako arrazoiak [aldeko/kontrako] adierazpena egin duela.

Hori guztia kontuan izanik, bideratzailea ezesteko eskaera [onartzeko / ez onartzeko] EBAZPENA eman du.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izptua.:

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Espediente-zk.: 201.. / 201.. Ikasturtea

.....(e)an gertatutakoa dela eta ikaslearen izenean hasitako espedienteari dagokionez, prozedura hasteko dokumentuko informazioa eta interesdunek aurkeztutako alegazioak analizatu eta ebazpen-proposamen hau egin dio bideratzaileak, jaun edo andereak, ikastetxeko zuzendaritzari:

- Non jaso ziren gertaerak:
- Frogatutako egitateak eta frogak:
- Zuzendu beharreko jokaera:
- Urratutako bizikidetza-araua:
- Hala badagokio, kautelazko neurriak:
- Hala badagokio, aringarriak:
- Hala badagokio, larrigarriak:
- Hezkuntza-arloko neurriak hartzeko proposamena:

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.: (bideratzailea).....

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

PROZEDURA BUKATZEKO EBAZPENA

Espediente-zk: 201.. / 201.. Ikasturtea

Ebazpen-zk:

..... jaun edo andereak(e)an
ikaslearen parte-hartzeaz gertatutakoa dela eta bideratutako espedientea ikusirik, 47/2010 Foru Dekretuko 21.2. artikulua egokitutako eskumenei jarraituz, zera

EBATZI DUT:

- Non jazo ziren gertaerak:
- Frogatutako egitateak eta frogak:
- Zuzendu beharreko jokaera:
- Urratutako araua:
- Kautelazko neurriak, hala badagokio:
- Hala badagokio, aringarriak:
- Hala badagokio, larrigarriak:
- Hartu beharreko hezkuntza-arloko neurria eta horretarako baliabideak:
- Neurriak hartzen hasteko eguna:
- Neurriak amaitzeko eguna:
- Neurriak egiaz amaitzeko eguna (kautelazko neurriak badago, neurrien iraupena kenduta):

Administrazio-bidea amaitzen du ebazpen honek. Aurkako erreklamazioa jar daiteke Eskola Kontseiluan, eta erabakia berrikusteko eskatu, ebazpena hartu eta hurrengo bi eskola-egunetan.

- Ikastetxe publikoetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Itunpeko ikastetxeetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak, berriz, jurisdikzio zibilean jarri behar dute errekurtsoa.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.: (Zuzendaria)

Hartzailearen sinadura:

Ebazpena emateko eguna:

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

HEZKUNTZAARLOKO NEURRIA BERRIKUSTEKO ESKAERA ESKOLAKONTSEILUARI
--

Espediente-zk.: 201.. / 201.. Ikasturtea

Ebazpen-zk.:

..... jaun edo andereak,

..... ikastetxeko ikasle den aldetik,

..... ikastetxean

matrikulatutako Lizarraldea BHI ikaslearen guraso edo legezko ordezkari den aldetik,

ESKATU DU:

Zuzendariak aipatutako espedienteari buruz onartutako ebazpena berrikus dezan Eskola Kontseiluak, arrazoi hauek direla medio:

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izptua.: (Eskatzailea)

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

**ESKOLAKONTSEILUAK HEZKUNTZA ARLOKO NEURRIA BERRIKUSTEKO ESKAERARI BURUZ EGINDAKO
PROPOSAMENA**

Espediente-zk.: 201.. /201.. Ikasturtea

Ebazpen-zk.:

Bere izenean, ikaslearen guraso edo legezko ordezkari den aldetik, Lizaraldea BHI ikastetxeko zuzendariak onartutako hezkuntza-arloko neurria berrikusteko eskatu du jaun edo andreak, espedientea hasi baitute ikaslearen izenean(e)an gertatutakoa dela eta. Eskaera ikusirik, zera uste du Eskola Kontseiluak:

Hori guztia kontuan izanik, ikastetxeko zuzendariari hau proposatzea erabaki du:

Hartutako hezkuntza-arloko neurria berrestea.

Hartutako hezkuntza-arloko neurria baliogabetzea.

Hartutako hezkuntza-arloko neurria aldatzea, honela:

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.: (Presidentea)

Izptua.: (Idazkaria)

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

AZKEN EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA INTERESDUNEI
--

Espedientezk.:

Ebazpenzk.:

Azken ebazpen-jakinarazpen zk.:

..... ikaslearen izenean (e)an gertatutakoa dela eta hasitako espedientearen kariatara Eskola Kontseiluak ebazpena berrikusteko eskaera dela eta ,egindako proposamena aztertu eta hau **ebatzi eta jakinarazi** du Lizarralde BHIko zuzendariak:

Aipatutako ebazpenak ezartzen duen hezkuntza-arloko neurria berrestea.

Aipatutako ebazpenak ezartzen duen hezkuntza-arloko neurria baliogabetzea.

Aipatutako ebazpenak ezartzen duen hezkuntza-arloko neurria aldatzea, honela:

Ikastetxe publikoetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak azken ebazpen eta jakinarazpen honen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Itunpeko ikastetxeetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak, berriz, jurisdikzio zibilean jarri behar dute errekurtsoa.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

Lizarran,(e)koaren ...(e)an.

Izptua.:

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

PROZEDURA HITZARTUA
ZUZENDARITZAREN eta INTERESDUNEN arteko BILERA

Espediente-zk.: 2011 / 2012 Ikasturtea

..... ikaslearen izenean hasitako espedienteari dagokion prozedura arruntaren barnean prozedura hitzartua erabiltzeko aukera emateko, pertsona hauek etorri dira **Lizarraldea BHI** ikastetxera(e)ane(t)an:

Ikaslearen izenean	Institutuaren izenean

Bilera horretan, ikasleak edota haren legezko ordezkariak [onartu egin dute / ez dute onartu] espedientea prozedura hitzartu bidez bideratzea.

Egintza hau egin izanaren frogagarri, dokumentu hau sinatu dute bertaratuek:

Ikaslearen izenean

Institutuaren izenean

Bertaratuak

	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK
--	--

PROZEDURA HITZARTUA: BIZIKIDETZARAKO KONPROMISOA

Espedientezk.:

Bizikidetzarako konpromisozk.:

..... ikaslearen izenean hasitako espedientea prozedura hitzartu bidez bideratzea onartu dute interesdunek, eta ikasleari aplikatu beharreko neurria eta horretarako baliabideak jakinarazi dizkie ikastetxeko zuzendariak, baita ondoriozko bizikidetzarako konpromisoa ere:

- Hartu beharreko hezkuntza-arloko neurria eta horretarako baliabideak:
- Neurriak hartzen hasteko eguna:
- Neurriak amaitzeko eguna (kautelazko neurriak badago, neurriaren iraupena kenduta):

Bizikidetzarako konpromisoa

Ikasleak edota haren legezko ordezkariak bizikidetzarako konpromiso hau onartu dute eta, horren frogagarri, sinatu egin dute,(e)n,(e)ko(a)ren(e)an.

Ikaslearen izenean

Ikastetxearen izenean

Izptua.: (Zuzendaria)